

UDALBURUA  
Iñigo Pinedo

AIARAKO UDALAK 2016ko UZTAILAREN 28an  
EGINIKO EZOHIKO ETA PREMIAZKO BILKURAREN AKTA

ZINEGOTZIAK

José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Lauren Uria  
Esteban Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamaseiko uztailaren hogeita zortzian, bederatzia direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ezohiko eta premiazko bilkura egiteko. Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jauna aritu da udalburu gisa eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki-araubideko oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85) 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU            EZ

DIRENAK

Gentza Alamillo  
Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Bilkurari hasiera eman aurretik, idazkariak gogorarazi die Udaltzako kide guztiei Iñigo jauna ari dela Udaleko alkate-lanetan, eskuordetze bidez, eta berak emango duela Gentza Alamillo jaunaren botoa ere, hark horretarako eskuordetu baitzuen, aita izan delako eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean jasotakoarekin bat etorritik.

Bilkura ez denez deitu Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak (apirilaren 2ko 7/85) ezarritako gutxieneko aurrerapenarekin, hau da aztergaien zerrendako lehenengo puntua:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, ezohiko eta premiazko bilkura honen deialdia egiteko beharra.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bilkura hau egiteko beharrari buruzko bozketa egin da. Udaltzako kideek aho batez onetsi dute.

**2.- Onestea, bidezkoa bada, Leziaga 1995 Construcciones SL enpresa aukeratzea "Etxaurren Ikastolan konponketa- eta aldaketa-lanak" egiteko kontratuaren esleipendun gisa.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraikiz,

**IKUSI DA.-** Udaltzaren 2016ko ekainaren 23ko erabaki bidez, onetsi egin zirela "Etxaurren Ikastolako konponketa- eta aldaketa-lanak" proiektuko obrak prozedura negoziatu bidez eta publizitaterik gabe kontratatzeke ekonomia- eta administrazio-klausulen pleguak.

**IKUSI DA.-** 2016ko ekainaren 28an prozeduran parte hartzeko gonbidapenak bidali zitzaizkiela bost enpresari, kontratuaren xede den obra egiteko gai direla iritzita.

**IKUSI DA.-** Lizitazio-aldian lau eskaintza jaso direla, eta espedientean sartu direla.

**IKUSI DA.-** Uztailaren 18an Kontratazio Mahaia osatu zela, eta, B gutun-azala ireki ostean, Construcciones Izoria 2000 SA enpresa lizitaziotik kanpo uztea erabaki zela, gutun-azal horren barnean automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei zegokien eskaintza eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideei zegokiena sartu zituelako; horiek C gutun-azalean sartu behar ziren.

**IKUSI DA.-** B eta C gutun-azalak aztertu eta puntuatu ondoren, hau izan zela balorazioaren emaitza:

ENPRESA	B GUTUN- AZALAREN PUNTUAZIOA	C GUTUN- AZALAREN PUNTUAZIOA	PUNTUAZIOA GUZTIRA
LEZIAGA	15	80	95,00
URBABIL	15	79,50	94,50
LAGUNKETA	12,5	78,22	90,72

**IKUSI DA.-** 2016ko uztailaren 22an hasiera eman zitzaiola negoziazio-faseari, eta aurkeztutako eskaintza hobetzeko eskatu zitzaizela hiru lizitatuzaileei.

**IKUSI DA.-** 2016ko uztailaren 22an eta 26an hiru lizitatuzaileen jakinarazpenak iritsi zirela Udalera, hasieran eskainitako baldintzak hobetzeko asmorik ez zutela adieraziz.

**AINTZAT HARTU DA.-** Esleipen-irizpideetan puntuaziorik altuena jaso duen enpresa Leziaga 1995 Construcciones SL izan dela.

**AINTZAT HARTU DA.-** Azaroaren 16ko 38/2011 Legegintzako EDaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoa.

**AINTZAT HARTU DA.-** Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85) 22. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Lizitazio honetatik kanpo uztea CONSTRUCCIONES IZORIA 2000 SA enpresa, dokumentazioa gaizki aurkezteagatik, pleguetan ezarritakoa bete gabe.

**Bigarrena.-** LEZIAGA 1995 CONSTRUCCIONES SL enpresa aukeratzea “Etxaurren Ikastolako konponketa- eta aldaketa-lanak” egiteko kontratista gisa, eskaintza onena aurkeztu duelako pleguan ezarritako esleipen-irizpideen arabera.

**Hirugarrena.-** Erabaki honen berri ematea Construcciones Izoria 2000 SA enpresari, jakitun egon dadin.

**Laugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea aukeratutako enpresari, eta eskatzea pleguetako

IX.2 artikuluan eskatutako dokumentazioa aurkez dezala hamar egun balioduneko epean, erabaki hau jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita.

**Bosgarrena.-** Dokumentazio osoa jaso eta 5 egun balioduneko epean horren kalifikazio positiboa egin ondoren (jasotzen denetik zenbatzen hasita), alkateak kontratua esleituko du, Udalbatza honek horretarako eman dion eskumenaz baliatuz.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura bederatziak eta hamar minutu direnean, eta aztertutako gaiak eta ebatzitakoak egiaztatzeko, nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko uztailaren hogeita zortzian.

O.E.  
JARDUNEKO ALKATEA

IDAZKARIA,

Sin.: Iñigo Pinedo Vadillo

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.